

EUSKAL HERRIKO ERLIJIOSOEN HISTORIAZ KONGRESU BATEN XEDE, LAN ETA IRADOKIZUNAK

Oraintsu sei hilabete ospatu zen Arantzazun “Familia eta Institutu Erlijosoen Euskal Herriko Historiaren I. Kongresua” (2002-Ekaina-24/28). Kultur gertakari azpimarragarria, uste dudanez. Lehenengo aldiz antolatzen zen jakite-eremu honetan honelako Kongresurik. Kongresuan eta bertako Batzorde Akademikoan egon den *Karmel* aldizkariko Zuzendariak bilerara horren berri emateko gomita egin dit, eta erantzun beharrean naiz.

Biltzarrak hainbat ekarpen berri eskaini zuen, eta eliz alor honetako historialarien eta historiografiaren beste hainbat arazo eta egiteko jarri zituen mahai gainean. Gaia ez zen, noski, gure artean gaurkotasun amorraturik duen horietakoa, nahiz eta batek uste duen garai aproposa dela oraingo hau Institutu Erlijosoen historiari heltzeko.

1983ko eliz Kodearen terminologiari segituz, “Institutu Erlijosok” deritzen horiena inoizko *Ordena* eta *Kongregazio* erlijiosoen mundua da, gurean epe historiko batzuetan garrantzizko pisua izan duena. Mende-tarte honetako datuek diotenez (1995-2002), Euskal Herriko Diozesietan 115 Institutu dira Iruñekoan egoitzaren bat edo gehiago dutenak (1997), 102 Bilbokoan (2000), 68 Donostiakoan (1995), 46 Gasteizkoan eta 20 Baiona-Iparaldekoan (2002). Euskal Herri osoan 140ren bateko kopurura iritsiko litzateke Institutu Erlijosoen hau. Eliz Erakunde hauek 800dik gora Etxe eta Bizi-talde dituzte Euskal Herrian.



Hortaz, hau dena bere indarrean dagoen errealitatea da oraindik; bizirik, bere indar “agonikoan”, etorkizun demografiko zailarekin baina ondare historiko oparoarekin.

Esanahi sozial hori batere gutxietsi gabe, gaurko egokiera historikoak interes gehitu bat du historialariarentzat. Aro Garaikidean (1791-2000), erlijiosoen bilakaeran bizi-ziklo osoa burutzera doala dirudi: “esklaustratu-izanberritu-loratu-zimeldu-hil”. Dena gertatu da eta ari da gertatzen bi menderen buruan. Eta oraintxe gaude agian azken unearen atarian. Zenbat erlijioso izango ote dira gure artean hemendik 25 urtera?

Kezka eta testuinguru horretan jaio zen aipatu den Kongresurako asmoa. Beronen herri ematean, bi puntu nagusitan bilduko dut hemen aditzera eman nahiko nukeena: 1. Kongresuak izan dituen xedeak, 2. Kongresuaren ekarpen eta lezioak (hutsune eta eskasiak barne).

1. KONGRESUKO XEDEAK

Oinarrizko bizpahiru konstatazio historikotatik hasi ziren definitzen Kongresurako arrazoiak eta berorren bidez zaindu nahi ziren xedeak:

1. Gure bizialdi historikoan Institutu Erlijiosoek mende anitz eman dute Euskal Herrian; kanpotik etorrita ia denek, eta gutxi batzuek, bertan jaiota; nolanahi ere, sarri askotan euskal herrietan ongi errotuta.

2. Hala ere, Institutu horiek, beren erakunde-barruti geografikoetan (Probintzia erlijioso eta abarretan), ia beti Euskal Herriari gutxi egokitu izan zaizkio, eta Euskal Herria zatikatuta ageri zaigu Institutu Erlijiosoen historietan, horrek ondorioz historiografian ekarri ohi dituen ezagutza-arazoeekin.

3. Lehenagotik, baina berezikiago Euskal Herriari buruzko ikerkuntza indarberritu denetik, premiazkoa da euskal geografien lurralde-barrutian bizirik izandako erlijiosoen fenomeno honi, dagokion lekua ematea, bera ere euskal Historia orokorrean txertagarri izan dadin.

4. Bestalde, Institutu Erlijioso horiek une honetan bizi duten egokiera larriagatik, arriskugarria da informazio-bilketa gerorako uztea.

Kezka hauei erantzuteko, Arantzazuko V. Mendeurren frantziskotarrak parada ona eskaini du atzerapenak albora utzi eta Kongresurako deia egiteko.

Besterik gabe, aipatu ditudan arrazoi horiek berek iradokitzen dizkigute Kongresuko xedeak ere zeintzuk izan zitezkeen.

1. Eremu honetan Euskal Herria bere batasunean begiratzeara, eta horretarako lehen jakite-baldintzak sortzea, interesatuei topaleku bat eskainiz eta premiazkoak gertatzen diren testu historiografikoak ekoiztuz.

2. Lehen pauso beharrezko bezala, bigarren xedea Institutu Erlijosoen parte hartzea sustatu eta segurtatzea izan da, beraien barne-logika laguntzeko Euskal Herrian albiste-plaza eta bozgorailu bat eskaintzen zitzaizkielarik.

3. Hirugarren xedea, Euskal Herriko Unibertsitateetan eremu erlijioso honetaz arduratzen direnen eta hemen nahiz erbestean alor berean Euskal Herriaz ekarpenik egin dezaketenen arteko lankidetzak sustatzeko bilgune bat sortzea.

4. Institutu Erlijosoen alor hautatu horretan, gaur egungo eza-gumenduen Euskal Herriko ikuspegi orokor hedagarri bat lantzea izan da hurrengo xedea (=sintesi historiko kontsultagarriak), betiere mundu akademiko zibil eta eliztarra elkar-lanean jarritz.

5. Azkenik, lortutakora mugatu gabe, hurrengo ikerkuntzatarako iradokizunak eta iturri-bibliografiaren albiste llabur bat eskaintzea.

1. 1. Euskal Herria bere osotasunean

Oro har, Institutu Erlijioso bakoitzeko sintesi nahiz monografia historikoak Ordena edo Kongregazioaren barrutien arabera aztertu eta aurkeztu izan dira, gainerako barruti eliztarrak edo zibilak apenas begiratu gabe. Jeneralean, Diozesien geografiak edo gainerako Institutuen lurralde-barrutiak ere ez ditu Institutu bakoitzak kasik aintzakotzat hartzen norberaren historia egitean, errazegi ahanzten dira testuinguru eliztarra bezala soziala.

Barruti administratibo zibiletara ere (Estatuak, Probintziak, Departamentuak eta beste) oro har oso gutxitan egokitzen dira Institutuetako barrutiak. Ez dago dudarik Institutu jakin baten lehen hedapena Kristandade garaietan egin izan zenean (Erdi Aroko nahiz Aro Modernoko Eskekoen tradizioan, adibidez) erlijiosoaren Probintziak Erreinetako geografia administratibora egokituz joan zirela, Koroaren ekimenen eta politika erlijiosoaren ondorioz. Horretan, Penintsula Iberiarreko kasua nabaria da, hainbat Institutu Erlijosoren historian: Aragoi / Gaztela /

Portugal (eta neurriren batean, Nafarroa ere). Hala ere, Aro Garaikideko Konkordatuak (1801; 1851, 1953) Diozesien eta Departamentu edo Probintzia zibilen artean bilatu zuten lurralde-adostea ez da sekula era berean egikaritu Institutuetan, baitik bat Esklaustrazio-ondoko Izanberritzean.

Barruti administratibo zibilei buruz esaten duguna are nabariagoa da oraindik Institutuen eta herrien arteko barruti-egokitzapenei dagozkienetan: Berant Erdi Arotik honako Erregimen Zaharrean eta gero ere, oso gutxitan etorri dira bat herriak (beren adiera etno-kulturalen) eta Institutuek beren administrazioan eratu dituzten erakunde-barruti geografikoak.

Hau dena, gainera, nahasiagoa izan da mendeetan zehar –denboraren harian, alegia– gertatutakoa begiratzen badugu: eliz aparatuak, eskierki, bere logika bilatu du, eta kanpotik (politika zibiletik edo gizartetik) bestelakorik ezarri ez zaionetan, Institutuko barne-eskakizunek agindu dute sarrienik, Probintzia, Kustodia, Etxe-barruti eta abarri beren mugak ematean.

Gure garapen politiko-administratibo historikoak ere deus gutxi lagundu izan du ibilera horretan, Nafarroa eta Hiru Herrialdeak alde banatatik joan izan direlako, eta Iparraldea(k) eta Hegoaldea ezin elkartua nabaria izan delako. Euskal Herriaren egitura politiko bateraturik ezak berehalako ondorio zuzenak izan ditu Institutu Erlijiosoek beren buruei eman behar zieten erakunde-barruti geografikoetan. Eskastasun politiko horren ondoan, gure nortasun etno-kulturalak indar ahula izan du –inkulturazioaren izenean edo– Euskal Herria barruti bateratu bakarrean besarkatzeko.

Institutu Erlijiosoen gure inguru hauetako kartografia lezio penagarria da, zinez: Euskal Herri oso-bakarrik ez dute ezagutu izan Institutu Erlijiosoek. Hori da datu historiko larria, arau orokor hori indargabetuko duen funtsezko salbuespenik gabe.

Hori horrela, esan beharrik ere ez dago: gero Institutuen histori ikerkuntza barruti erlijioso horien bidetik joan izan da eta



ekoiztutako historiografia horretan Euskal Herriak izan zezakeen nortasuna gutxienik lausoturik atera da, nahasia, agian galdua.

Horregatik, gure herriaz dugun premia epistemologiko bati erantzun nahi izan zaio, bada, Kongresu honetan: Nola ezagut genezake gure iragan hori, esan bezala Euskal Herria hain sakabanatuta eratu den Institutu Erlijosoen mundu horretan?

Galdera honi erantzun praktikoak ematen hasteko une ego-
kia zela hau uste izan da. Institutuek etorkizuna zaila ikusten
dute gaur egun, batzutan beren buruak hiltzear ere bai; edo-
zein eratar, norberaren oroitzapena segurtatu beharra senti-
tzen da: bizi eta egindakoaz berri eman beharra, Institutua de-
sagertuta ere "oroimen historikoa" beste segidaren bat izango
duten errealitate sozialekin lotu beharra, alegia. Argi dago his-
torialaritarako gero eta indar eta asti gutxiago dagoela eliz
Institutu hauetan: hortaz, horretan interesik dutenei eskuratu
beharko zaizkie lanerako argibideak eta tresnak...

Gogoraraz daiteke, gainera, 1968tik honantz, Unibertsitate eta Ikertegi zibiletan lan eta teorizazio aberatsik egon dela eliz historiografia berritzeko ahaleginetan (Frantziako kasua dut batez ere buruan), baita Institutu Erlijosoei dagokienean ere. Aldi bertuan, Euskal Herrian, ikertzaile eta ikastun franko agertu zaigu geure historiaz orokorrean –eta eremu honetan ere bai zenbait– Euskal Herria unitate historiografikotzat hartu duenik.

Ageri diren eskaintza/eske horien arteko joan-etorria azkartu nahi izan du Kongresuak, Euskal Herri osoa bere lan-barruti bakartzat hartuz, baina erbestetik etorritako iradokizun historikoak eta hemendik erbesterako hedapenak ahortzi gabe.

1. 2. Institutu Erlijosoen lankidetza

Hasteko, esan ditugun arrazoiengatik, erabat premiazkotzat jo dira Institutuen Kongresuko lankidetza eta konplizitatea.

Institutu Erlijioso handiek (handiak, beren historia luzeagatik nahiz izan duten hedapenagatik) batzutan Histori Ikertegi berezituak dituzte, iturrien edizio, aldizkari eta ikerlan-bildumekin; inoiz, mendetako iker-tradizioarekin, gainera. Gaur egun ere halako edo antzeko Ikertegietan ikastun alboraekin ari dira lanean, agian gure hemengoaz ere interesaturik ari direnak. Honelako kasuak gogoan eduki nahi izan dira Kongresuan.

Bestalde, halako Ikertegi berezituetatik at ez da falta Unibertsitate eta Goi-Eskoletan Institutu Erlijioso hauetako ikerlaririk, zenbait hutsune betez eta agian baita Euskal Herriaz arduraturik ere. Izan dira Kongresuan gisa honetako lankideak ere. Horiek dira kasurik erosoena, Ikertegi berezitueta eta Ikertegi orokorragoetan ikerkuntzan ari direnena, alegia.

Agirian dago, ordea, ez dela hau Institutu guztien kasua, eta Kongregazio moderno gehienek –historia laburragokoak eta lagun-kopuruz apalagoak izaki– ez dutela iraunkorki ikerkuntzan diharduen Histori Erakunderik, edo eskasago oraindik:

beren iragana ikertu ez duen Kongregaziorik ere badela Euskal Herrian leku on bat ere izan dutenen artean. Zer egin, bada, holakoetan? Egoerari aurre egiteko, lantaldeak sortu behar izan dira, edo ikertzaile interesatuagoren bat bilatu. Ez dugu beti nahi genuena lortu.

Hori dena ikertzaileei beren beregi eta zuzenean dagokiena da, baina Institutu Erlijosotako Nagusi eta arduradunei dagokienik ere aipatu behar dugu esku artean dugun zeregin honetan. Nagusiaren erabaki on batek erraztasun handiak eman ditzake ikerkuntzarako, artxiboak irekiz edo “etxeko” ikertzaileen baten orduak eskainiz. Institutu Erlijosoen lankidetzak ofizialago hau bilatzea ere izan da Kongresuko xedeetako bat.

Bi sarbide hauek –Institutu Erlijosotako ikertzaile/ikertegiena eta agintarien bidezko laguntzak– baliagarri izan ditugu ospatu den Kongresuan, baina esan behar da ez dugula inondik ere horretara mugatu nahi izan.

1. 3. Lagunarte akademiko orokorrarekin

Historia erlijiosoa aztertu nahi delarik, Institutu Erlijosoez gizaratean orokorki izan duten lekuagatik, iker-eremu hau edozein ikertzailerentzat gerta daiteke erakargarri, eliz Ikertegietan bakarrik ez, baizik eta komunitate zientifiko orokorrean ere.

Kongresuak lortu nahi izan duen helburuetako bat izan da, bada, eliz kanpoko ikertzaile hauengana iritsi eta lantalde horiekin harremanetan izatea. Betiere arreta handiagoz egin nahi izan du hori Kongresuak Euskal Herriko historia erlijiosoarekin interesaturik ageri direnen artean.

Gauzak datozen bezala ikusita, Institutu Erlijosoez ez dute gurean indar berri ugari izango, berehala behintzat, eta dituztenak ere ez dira izango erraz bestelako beren zereginen artean histori ikerkuntza hauei lehentasunik emateko moduan. Horrek ondorio argi bat du: etorkizunean, hein handi batean,

ikertzaile zibilek egin beharko dituzte Euskal Herriko Institutu Erlijiosoez beharrezko ikerlan historikoak.

Eliz tradizio historiografiko aberats, aberasgarri eta zuzengarri baten herentzia jaso eta gararazteko prest egon beharko luke Euskal Herriko Unibertsitateetako ikertzaile-belaun berriak; uste dudanez, eskertuko litzaiokeen lana izango litzateke, eta une honetan gero eta egingarriagoa gerta daitekeena dela esango nuke. Asmo hau sakatzea izan da Kongresuaren beste xede bat.

Alor honetan, historialarien arteko garrantzizko errelebo baten aurrean ote gauden nago.

1. 4. Oinarrizko lehen argibideen bilketa

Lehenengo Kongresua izan da hau, eta, hortaz, oinarrizko lehen argibideak bildu nahi izan ditu batez ere: Euskal Herriaz eta eremu jakin honetan gaur egun ditugun jakitate orokorre-nak bildu, iker-bide berrietan sartzeko asmoa hurrengo ekitaldietarako lagaz.

Gure lan historiografikoen eta ezagumenduen “status scientiae” bat aurkezteko moduan izan nahi genuen Kongresua amaitzean. Bertako *Aktek* erakutsiko digute zenbatetaraino eta nola eskuratu den edo ez den helburu hori.

Kongresuko egitaraua eta topaketak erronka bat bezala sentitu dira, noski: Nork emanda eta nola bilduko ziren eskueran egon zitezkeen Institutu Erlijiosoen sintesi historikoak? Probokazio bat izan nahi zuen Kongresurako deiak. Gero ikusi da halaxe gertatu dela: ikertzaileek elkarren lehian ibili behar izan dute, langaiak beharbada eskas, baina, batez ere, sintesirik ez zegoen Euskal Herriko eremu honetan. Azkenean, non geundenaren kontzientzia argitzeko ez bada, eztenkatzeko behinik behin balio izan du. Txosten eta komunikazioen maila eta kalitate ezberdinek ere erakutsiko dute hori.

Beraz, lanak burutu aurreko eta orduko itaun eta zalantzek ez ezik idazlanaren beraren ondoko zeruertz berriak iradoki dio ikertzaile bakoitzari ondoko lanen premia eta agian nondik norakoa: ditugun ezin, hutsune eta eginkizun direnak agerian geratu zaizkio lankide bakoitzari, aztertu behar izan duen alorrean.

Oraingoan bilatzen genituen sintesietan egitekorik larrienak burutu samartu direla pentsa daiteke, baina beste hainbat txikiago, edo zabalago, itxaroten geratu da oraindik (batez ere, emakumezkoen historian, Kongregazio moderno txikiagoen kasuan, Iparraldeko informazioen eskasian, etab.). Honetan, bada, jarraitu beharra daukagu, hasiera batean espero genuena baino gehiago bildu den arren.

Bestalde, aurkeztutako sintesiak ez dira beti molde berekoak izan, eta desberdintasun horiek ere —aberastasuna izan arren— begiraturen bat beharko dute, argibideak bateratu eta osotasun garaigoetara pasatu aurretik.

Dena den, ekarpen serioa gertatuko da Kongresurako egin den lana, bere tamainagatik, eta sarritan, lortu den kalitateagatik ere. Hori espero nahi dugu, behintzat.

1. 5. Azterbide berrietarako iradokizunak

Hasierak amaia eskatzen du, baita hemen ere, eta lehen urratsak hurrengoak behar ditu. Horregatik, Kongresuaren asmoetan izan da beti, iraganari buruzko argibideak ematean, ondoko lanetarako erraztasunak eskaintzea. Eta hori hiru bideetatik egin nahi izan da:

1. Ikerlan berrietarako iradokizunak eginez, ahal denean behintzat.

2. Eskueran dauden iturri-edizio eta bibliografia baliagarrienak aurkeztuz.

3. Ikertzaile eta Ikertegiekin harremanak lotzeko topagunea jarritz.

Etorkizuneko lanetara irekita jardun nahi izan du Kongresuak, bildu eta idatziz Aktetan joango denaren ondoan, leiho berriak irekiz: Aktek eskainiko dutena baliozkoa izanik ere, ondoko lanetara zabalik egin nahi izan du lan biltzar honek.

Kongresu ondoko harremanek eta gogoetak erakutsi behar-ko dute geroko lan hori nola eta zein baliabiderekin izan daitekeen egingarri: Bilerak, argitalpenak, lankidetzak eta abarren bidez. Hasteko, elkar ezagutzea eta elkarrekin jardunean izatea lehen pauso on bat dela pentsa daiteke.

2. KONGRESUKO EKARPEN ETA LEZIOAK

Bost egun laburretan aurkezturiko lanek zortzi hilabeteko prestakuntza izan dute aurretik, antolakuntzaren aldetik; parte hartzaile bakoitzari ordu dezente eskatu dizkio Solasaldia nahiz Txostena idazteak. Bi alor nagusitan eman ditu bere emaitzak Kongresuak, harremanetan eta idazketan.

2. 1. Harreman instituzionalak eta akademikoak

Horrek harreman-sare zabala lantzea eskatu du, erakundee-kin bezala lankide izan zitezkeen ikertzaileekin ere, sarritan edo gehienetan lehenagotik ezagutzen ez genituenak eta ia beti elkarren artean harremanik ez zutenak.

Hau da Kongresuak bere bidean -aurretik, bitartean eta gero- utzi digun emaitzetako bat. Harremanak, antolakuntza-bulegotik, lehenengo; eta batez ere Kongresukoan, harremanak, kongresu-kideek elkarren artean.

Kongresuko makineria abiarazteko premiazkoa gertatu da -eta esan behar dut, hasieran koordinatzaile zen honek ihes egin nahi zuela arrisku hauetatik...- Institutuetako zenbait Nagusirekin harremanetan egotea. Horri esker, partaidetza za-

balagoa segurtatu ahal izan da, hitzaldiak ugarituz ez ezik azterlanei ordu gehiago eskainiz ere.

Harreman-molde hauetan, jardunbide bereziki emankorra suertatu da Bizkaiko Erlijiosoek Kontseilutik egin den XX. mendeko Emakumezko Institutuei zuzendutako inkesta, lortu dituen informazio hain osoengatik.

Gezurra badirudi ere, Institutu Erlijiosoetako ikertzaileek -pare-pareko eremuetan ibilirik ere- gainerako Institutuetakoekin harreman eskasak dituzte maiz; alde horretatik, egokiera honetan Euskal Herriko eremu jakin honetakoaz denek elkarren ondoan jardun behar izan dute, azken buruan institutuarteko lana bilakatu den bilera batean.



Horrek goi-mailako adineko ikertzaileentzat balio izan baidu, era berean balio izan du Kongresuak belaun-arteko zubiak egiteko ere, dagoeneko erretiro-mugetan dabiltzanek eta hasi berriagoak direnek ere aukera izan baitute elkarren ezagupidea egiteko.

Azkenik, euskal ikertzaileek ere aukera izan dute kanpotik gureaz ari direnekin ezagutze-trukean jarduteko. Dena den, gerora kapitulu honetarako aukera berriak sustatu beharra egongo da, noski.

Kongresua hiru hizkuntzatan egin izana ere (euskara, gaztelania, frantsesa), harremanen ekarpenen artean jarri beharko litzateke. Garestita, eta nekoso ere, gerta daiteke jarduera hau, batez ere ohizko baliabide teknikoak oso eskura ez daudenean, baina komeni zaigu ahaleginari eustea, euskarari ere mundu akademikoan bere tokia aitortu nahi baldin bazaio behintzat.

2. 2. Idazketa-lan zabala, eta eginkizun direnak

Zalantzarik gabe, Kongresuan emandako hitzaldien argitalpena izango da bilerak utziko duen altxorrik finkoena, idazketa-lan erraldoia egin baita hilabete gutxitan, 2002ko lehenengo sei-hilabetekoan. Kongresuko egitarauak ematen du asmo osoaren berri.

Lanak, laburrak baino aski luzeak nahiago izan dira, batez ere Familia Erlijioso handien berri eman behar zenean (40/50 orrialde). Oro har, esan behar da egitarauak hizlari bakoitzari eskaintzen zion tarte mintzatua motz geratu izan zaio, idatzita zekarrena osorik eman ahal izateko.

Hemen ez dut modurik, Kongresuan izandako 52 hitzaldiren berri emateko, baina esan dezadan, bere haundi-maundian, 25en bat Instituturi buruz hitz egin dela, eta beste hainbat gai monografiko ukitu direla, batzuetan gai-multzo jakinak osatuz.

Honela, iturrien arazoa, euskal kulturako ekarpenak, Institutuen Erreforma-une handiak, euskal erlijiosoen Erbesteraiko hedakuntza, EHko Irakaskuntza edo emakumezkoen Institutuen historiari arreta handiagoa jarri dio Kongresuak, geroko ikergai berriak urratzen hasteko asmoz.

Datozen hilabeteetan argitara emango diren *Aktek* jarriko dute agerian bildutako langaien neurri eta balioa: ez da izango dena tamaina eta kalitate ber-berekoa, baina dugun hutsune jakin bat beteko digute (elkarri sintesi egokiak eskainiz), alde batetik, eta eginkizun ditugunak ere nabarmenduko dituzte, bestetik.

Egindakoaren ondoren egitekoa geratzen zaigu orain: mugarriztatu zaigun eremuan –Euskal Herrian eta Institutu Erlijiosoen alorrean, alegia– maila, molde eta gai berezituagoe-tan jardun beharra, gaur egun ezagunak diren teoria epistemo-logiko abstraktuenak gurerara ere ekarriz, metodologia landue-nak erabiliz eta aztergaiaren alde ezberdinak lantzen hasiz edo segituz.

Institutu Erlijiosoek beren “etxetik” irten beharra daukate, hizkera berritzeko premia dugu guztiok, laguntzak eskaini eta eskatzeko aukera, Kongresuak irakatsi digunaren arabera. Honela, komeni da, gure iraganak eskuetatik ihes egin baino lehen, oraindik Institutu Erlijiosoetan eskuera ditugun albiste-gi eta lanerako borondateak bildu eta abian jartzea.

Joseba Intxausti

Donostia, 2002-11-05